

Berdintasunerako Zerbitzuak, Udal honek onetsiriko Aukera Berdintasunerako Plana gauzatzeko eta “**baterako hezkuntzako ekintzak**” (20. helburua, 20.3. ekintza) agertzen dituen atalarekin lotuta, baterako hezkuntzako programa bat jarri behar du abian herriko ikastetxe guztietarako (Camino de Santiago I.P., Catalina de Foix I.P., Erreniega I.P. eta Zizur BHI).

Proposamena **Lehen Hezkuntzako 5.** eta **DBHko 3.** mailetako ikasleei bideraturik doa. Iraupena 4 saiokoa da, elkarren segidako astetan bana, 50 minutukoa bakoitza, azaroan.

Erabiliko den **metodologia** aktiboa eta parte hartzekoa izanen da, ikasleen hausnarketan, iritzi trukaketan, esperientzietan eta ikasitakoaren benetako aplikazio praktikoaren bilaketan oinarritua. Ahozko ohiko azalpenak ahalik eta gehien gutxituko dira eta, gai bakoitzari dagozkion testu eta dokumentuetatik abiatuta, talde lanari ekinen zaio.

Lehen Hezkuntzako tailerren **edukia** hauekin egonen da loturik:

- Baterako hezkuntza: estereotipoak eta aurreiritzi sexistak. Berdintasun, tolerantzia, erantzukizun eta errespetu baloreak. Genero rolak.
- Geure nortasuna ezagutzea: autoestimua, nork bere burua hautematea...
- Emozio adierazpena: emozioen identifikazioa, segurtasuna, ezberdinarekiko errespetua eta tolerantzia...
- Neskak eta mutilak harremanetan eta garapenean: sexu heziketa, bikote harremanak, afektibitatea...
- Genero indarkeriari aurrea hartzea: indarkeria eta afektibitate agerpenak egunerokoan, norberaren eskubideen baieztapena...

Bigarren Hezkuntzako tailerren **edukia** ardatz tematiko hauekin egonen da loturik:

- Genero indarkeriari aurrea hartzea (berdintasuna, elkarren arteko erantzukizuna eta zuzentasuna; familia, eskola eta komunikabideen testuingurua; estereotipoak eta rolak)
- Afektu eta sexu harremanen heziketa (diskriminaziorik gabeko sexu nortasuna; ongizatea eta maitasunezko trataera ona; sexu merkataritza).
- Lanbidearen hautaketa eta lan merkatua: generorik gabeko lanbidea aukeratzea.